

BESTELAKOAK

Tabernaz tabernako poesia musikatua • Poetak: Jose Luis Otamendi, Edorta Jimenez, Urtzi Urrutikoetxea, Igor Estankona, Iñigo Aranbarri, Kirmen Uribe • Bilbon, Alde Zaharreko lau tabernatan • Gaur, 20:00etan, Korrika Kulturalaren barruan

«Baimena eskatu barik poesia jendearengana hurreratzea da kontua»

TABERNAZ tabernako poesia musikatua antolatu dute Bilboko Alde Zaharreko Euskal Txokoak eta Lizardi AEK-k, *Korrika Kulturala*-ren barruan. Gaur izango da emanaldia, 20:00etatik aurrera, Alde Zaharreko lau tabernatan: Herriko Tabernan, K2-n, Hikatenean eta Kalderapekon.

Baina emanaldia berezia izango da, lau taberna horietan zirkuitu bat egingo baitute, eta sei poetak bikoteka arituko baitira tabernarik taberna. «Bikote bat hasiko da Herriko Tabernan, bestea K2-n, eta hirugarrena Hikatenean. Bikote bakoitzak zortzina minutuko saioa egingo du taberna bakoitzean, zenbait musikariren doinuez lagunduta; eta hiru taberna horietan aritu oste-

an, bederatziak laurden gutxiagotan-edo, Kalderapekon bilduko dira guztiak azken emanaldia elkarrekin eskaintzeko». Halaxe azaldu dio EGUNKARIARI Lutxo Egia antolatzaileetako batek.

Emanaldia egingo den moduagatik, jendeari «baimena eskatu barik» poesia eurengana hurbiltzea izango da kontua. «Ostirala delako, badakigu taberna horietan jende asko egongo dela, eta ez bakarrik poesia emanaldia espreski ikustera doazena; beraz, zenbaitzuek emanaldi honekin topo egingo dute, eta ondorioz, ez dakigu jendearen erreakzioa zelakoa izango den... Bada, beraz, nolabaiteko erronka».

I. Basterretxea
BILBO



ANDER GILLENEA

Musikarien laguntzaz sei poeta ariko dira: Iñigo Aranbarri -argazkian-, Jose Luis Otamendi, Edorta Jimenez, Urtzi Urrutikoetxea, Igor Estankona eta Kirmen Uribe.

MUSIKA

ALEGIA

► **Zatika.** Hilario tabernan 22:30etan.

BARAKALDO

► **Ruper Ordorika.** Barakaldoko Antzokian, 20:30etan.

BILBO

► **L'italiana in Algeri** Rossiniren opera eskainiko da Coliseo Albia antzokian 20:00etan.

► **Markos Unzeta.** San Frantzisko auzoko Sarean.

► **Bilboko Orkestra Sinfonikoa.** Ayala antzokian, 20:00etan.

► **Zpeiz Urdeak eta Zea Mays.** Irulegi Irratiko jaia Kafe Antzokian 22:00etan.

► **Permatxa, Piztiak eta pp a aulvoodoo.** Santutxuko Gaztedi lokaletan 21:00etan.

► **MCD, Reserva 2, Kostra Nosttra.** Deustuko San Jose jaietan 23:00etatik aurrera.

DONOSTIA

► **Betagarri eta Kolore Biziak.** Altzako Casares Kultur Etxean.

► **Silguero.** Biolontxelo kontzetua Victoria Eugenia 20:00etan.

ELORRIO

► **Erramun Martikorena, Mikel Urdangarin, Lorelei.** 22:30etan Arriola kultur aretoan, *korrika kulturala*. Eta 00:30etan Ateneoan **Balerdi Balerdi eta Bide Ertzean.**

ERRETERIA

► **Antton Valverde.** Niessen aretoan 20:00etan.

GASTEIZ

► **King Mafrundi eta πLT.** Rock kontzertua eta moda desfilea Elefante Blanco diskotekan 21:00etan.

MIARRITZE

► **Benito Lertxundi eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.** Palais du Festival, 20:30etan.

SORALUZE

► **Rogelio Botanz.** Frontoian 23:00etan musika kanariarra.

TAFALLA

► **Euskal kantu txapelketa.** Kultur Etxean 20:00etan.

TOLOSA

► **Ansia eta Regimen Brutal.** Martxaundi III proiektuaren barneko kontzertua. 22:30etan Anoetako gaztetxean.

ANTZERKIA

ARRIGORRIAGA

► **Lisistrata.** Hamaika taldearen eskutik bi saio: 18:00etan eta 20:00etan.

BEASAIN

► **Dakota.** Tianttaka taldea Usurbe antzokian, gaueko 22:15etan.

BILBO

► **Como canta una ciudad de noviembre a noviembre** Lluís Pascualen zuzendaritzapean Arriaga Antzokian 20:00etan.

EIBAR

► **101 años de cine.** Mariano Marín-Angel Ruiz konpainia 20:30etan Portalean.

GASTEIZ

► **Arraultza delikatuak** obra interpretatuko du Hika taldeak Gaztetxean, 19:30etan.

IRUÑEA

► **Locas de amor** izenburuko lana eskainiko du Pabellon taldeak Erraldoien Txokoan 20:00etan.

PASAIA

► **Haur eta gazteen antzerki emanaldiak.** San Pedroko Udal Aretoan arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

UZTARITZE

► **Antzerki gaua.** Uztaritzeko bilgune gelan 21:00etan. Fernando Arrabalaren frantsesezko antzezlan.

ZINEMA-BIDEOA

ARETXABALETA

► **Laburmetraien gaua.** Korrika-ko erreportaia eta bideo klipa eta beste hiru laburmetrai es-

kainiko dira Udaletxe Zaharrean: Txotx, Bernar eta Laugarren galeriatik.

BAIONA

► **Errebelde baten egunkaria.** Atalante zineman 22:00etan.

BILBO

► **La gran batalla de la alfabetización. Lucía...y el machismo.** La Bolsa aretoan, 19:30etan. Kubako zinemaren astea.

IRUN

► **El sabor de las cerezas.** Abbas Kiarostamiren filmea Amaia Kultur Zentroan 20:00etan.

HITZALDIA

ARBIZU

► **Koloreak euskal usadioan.** Patziku Perurena Udaletxean 21:00etan.

BERMEO

► **Antimilitarismoaren etorkizunerako bideak.** Mahaingurua Udal liburutegian 19:30etan.

DONOSTIA

► **Ecuador, de la mitad del mundo al centro del infierno.** Carlos Ordoñezek emango du hitzaldia Intxaurrendoko Ipar Haizea elkartearen 20:00etan.
► **Eskuhartze zehatza eta ez zehatza.** Etorkintza fundazioko

GASTEIZ

► **Las relaciones familiares tras un diagnóstico de cáncer de mama.** Goriuri Jauregia 19:30etan.

GETARIA

► **Hiesa.** Harri-Beltzak eskainiko du hitzaldia Udal Aretoan, 20:00etan.

HONDARRIBIA

► **Hondarribiaren erbestea-Martin Ugalde, bizia eta lana** izeneko hitzaldia emango du Joan Mari Torrealdai. Ondoren Jose Angel Askunzek Ricardo Ugarteri buruz hitz egingo du.

IRUÑEA

► **Arturo Campión entre la Historia y la literatura** hitzaldia eskainiko du Jose Javier Lopez Antónnek Navarrerria Kultur Zentroan 19:30etan.

LIZARRA

► **El proceso de creación como camino** hitzaldia eskainiko du Almudena Grandesek Gustavo de Maeztu museoan, 20:00etan.

OLAZTI

► **Olaztiko euskara.** Edurne Lopez de Goikoetxea eta Adelaida Kintana Kultur Etxean 19:00etan.

SEGURA

► **Lizarra-Garaziko akordioaren aurkezpena.** Kultur Etxean edo Udaletxean 19:30etan. M. Olano, J.A.Arrieta, I.Galdos eta R. Irazusta izango dira.

ZARAUTZ

► **Euskal literaturaren obra nagusiak: Txomin Agirre.** Ana Toledok eskainiko du hitzaldia Olerti Etxean 19:30etan.

► **Gaur egungo sexualitateari buruzko debatea.** Sanz Enea kultur etxean 19:30etan.

BERTSOLARITZA

ARAMAIO

► **Andoni Egaña, Anjel Mari Penagarikano.** Bertso afaria Dukiena tabernan.

DONOSTIA

► **VII.Orixe Saria.** Añorgako Jolas etxea elkartearen hirugarren kanporaketa, 22:30etan.

► **Sorozabal eta Irazu.** Ontza elkartearen bertso-afaria.

MEÑAKA

► **Igor Elortza eta Sebastian Lizaso.** Eleizondo tabernan bertso afaria 21:30etan.

URNIETA

► **Mendiluze, Sorozabal, Argiñarena eta Garmendia.** Korrikaren aldeko bertso-afaria. Oialume jatetxean 21:00etan.